

## **EH Bilduk salatu du Foru Gobernuak «ziurgabetasun egoeran» utzi dituela gaixotasun mentala duten Aiaraldeko 12 lagun**

Adierazi du EAJk eta PSEk linbo batean utzi dituztela gaixotasun mentala duten gazteentzako etxebizitza komunitario baten erabiltzaileak; ASASAM elkarteak kudeatzen du etxebizitza hori

**Araba | 2022-02-03.** Claudia Venceslao EH Bilduko Arabako batzarkideak salatu du EAJren eta PSEren Gobernuak gaixotasun mentala duten 12 pertsona «ziurgabetasun egoeran» utzi dituela. EH Bilduk abenduan jakin zuen Foru Gobernuak ASASAM erakundeari jakinarazi ziola indarrean dagoen hitzarmena bertan behera utziko duela 2022 amaieran. Hitzarmen horri esker, etxebizitza komunitario batean 3 pertsona eta bizitza independenterako hezkuntza-laguntza duten 9 pertsona artatzen dira.

Horren larritasuna ikusita, batzarkide taldeak zenbait galdera egin zizkion Gizarte Politiketako foru diputatuari. Ondoren, Gizarte Politiketako Sailak ASASAMi jakinarazi zion gaur egun 3 pertsona artatzen dituen etxebizitza hori bizitza independenteari laguntzeko etxebizitza bihur zitekeela, baina ez ziren argitu ez arreta-plazak, ez gaur egun hezkuntza-laguntza jasotzen duten 9 pertsonen etorkizuna. Batzarkide taldeak jakin duenez, Laudioko etxebizitza komunitarioa pertsona bakarra ari da artatzen, eta bi plaza geratzen dira libre: «Ez dugu ulertzen kolektibo horri arreta emateko itxaron-zerrenda egonda, Aldundiak plaza hutsak egotea ahalbidetzea», adierazi du Venceslaok.

### **Itxaron-zerrenda luzea**

Hitzarmenaren etorkizuna ez jakiteak sortzen duen nahasmenaren eta ziurgabetasunaren aurrean, EH Bilduk ekimen bat eramango du hurrengo osoko bilkurara Gizarte Politiketako diputatua interpelatzeko, Aiaraldean gaixotasun mentala duten pertsonak artatzen dituen hitzarmen garrantzitsu horri dagokionez Foru Erakundeak dituen planak ezagutzeko.

«Araban hutsune handia dago gaixotasun mentala duten pertsonak artatzeko egoitza-plazetan, eta oso larria da gabezia horrekin Foru Gobernuak 12 pertsonaren etorkizunarekin jokatzeko. Ezin da onartu Gonzalez jaunaren gobernuak bere konpromisoei muzin egitea berriz ere. ASASAMek, erabiltzaileek eta haien familiek errespetua eta segurtasuna merezi dute beren etorkizunaren gainean», esan du Venceslaok.

## **EH Bildu denuncia la «situación de incertidumbre» de 12 personas con enfermedad mental en Aiaraldea**

Afirma que PNV y PSE dejan en un limbo a las personas usuarias de una vivienda comunitaria para jóvenes con enfermedad mental gestionado por la asociación ASASAM

**Araba | 2022-02-03.** La procuradora de EH Bildu Araba Claudia Venceslao ha denunciado hoy “la situación de incertidumbre” a la que el Gobierno de PNV y PSE ha abocado a 12 personas con enfermedad mental. EH Bildu tuvo conocimiento en diciembre de que el Gobierno Foral había informado a la entidad ASASAM que a finales del 2022 eliminaría el convenio en vigor. Gracias a ese convenio, se atiende a 3 personas en una vivienda comunitaria y a 9 personas con un apoyo educativo a la vida independiente.

Ante la gravedad de este hecho, desde el grupo juntero realizaron algunas preguntas al Diputado Foral de Políticas Sociales. Posteriormente, el Departamento de Políticas Sociales informó a ASASAM de que la vivienda que actualmente atiende a 3 personas podía reconvertirse en un piso de apoyo a la vida independiente, pero no se aclaró ni las plazas de atención, ni el futuro de las 9 personas que en la actualidad reciben apoyo educativo. Según ha podido conocer el grupo juntero, la vivienda comunitaria ubicada en Laudio, sólo está atendiendo a una persona, quedando dos plazas libres: «No entendemos como con una lista de espera para la atención a este colectivo, la Diputación permite que haya plazas vacías», ha declarado Venceslao.

### **Gran vacío de plazas**

Ante la confusión y la incertidumbre que provoca no saber el futuro de este Convenio, EH Bildu llevará al próximo pleno de control una iniciativa para interpelar al Diputado de Políticas Sociales con el fin de conocer los planes que desde la Institución Foral se tiene con este importante convenio que atiende a las personas que sufren enfermedad mental en Aiaraldea.

“En Araba existe un gran vacío de plazas residenciales para la atención de personas con enfermedad mental, es gravísimo que con esta carencia el Gobierno Foral juegue con el futuro de un convenio por el que se atiende a 12 personas. Es inasumible que el Gobierno del Señor Gonzalez vuelva a incumplir sus compromisos. ASASAM, las personas usuarias y sus familias se merecen respeto y seguridad sobre su futuro”, ha concluido Venceslao.